

ZERUTIK NATOR MARA-MARA  
ZURIA, HOTZA ETA EDERRA,  
MENDIAN TXURI GAILURRA,  
NIRE IZENA DA \_\_\_\_\_.

---

ZERUTIK DANBORRAREN HOTSA  
DARDARREZ NAGO, HAU LOTSAI!  
TXIMISTAK ZIRT-ZART  
HODEIAK ILUN  
BADATOR EKAITZA.  
ZERK ATERATZEN DU SOINUA?

---

TANTAKA-TANTAKA GOITIK BEHERA  
JAISTEN NAIZ HODEI ARTETIK  
MUGI MUTIKO/NESKATO TA ZOAZ ETXERA  
BESTELA BUSTIKO ZAITUT NIK.

---

EZ NAIZ EURIA  
EZ NAIZ ELURRA  
BAINA JAISTEN NAIZ ZERUTIK.  
EZ NAIZ HARRIA  
BAINA GOGORRA  
EZ DA NI BEZALAKORIK.

---

AMAITU DA EURIA,  
ATERA DA EGUZKIA  
ETA ORTZEAN ZUBIA  
KOLOREZ IKUSGARRIA.

---

HEGORIK EZ DU  
ETA EGAN EGITEN DU,  
AHORIK EZ  
ETA TXISTU JOTZEN,  
ESKURIK EZ  
ETA JO EGITEN GAITU,  
BAINA ZUK EZ DUZU  
EZ IKUSTEN, EZ UKITZEN.

---

GOIZERO DATOR HUTSIK EGIN GABE  
ETA EGUN OSOAN BERAREKIN GAUDE.  
ARRATSALDERO AGURTZEN GAITU  
<<AGUR ETA BIHAR ARTE>> ESANEZ.  
ZER DA?

---